



Intxaurtze

etxebizitza

Aldaerak:
Ahozkoa:



43° 11' 23"

2° 35' 14"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Ortuguren (**Ikus Ortuguren**) baserriaren “*Etxeoste*” lurretan egindako txaleta da honako hau. Bertan intxaurrenondak zeudenez, horren izen parekoa edo sinonimoa den Iparraldeko euskalkien *Intxaurtze* hitza hautatu dute etxe berria izendatzeko.

2010ean eraikitako txaleta da. Pisu bakarra eta teilatupekoa dauka eta oso modu asimetricoan du antolatua fatxada nagusia. Izan ere, alde ba-

tean kokatu dira garajea eta sarrerako aterpea, eranskin gisa, eta bestean, etxebizitza bera da nagusi. Eraikitzeko erabilitako materiala harria da. Salbuespena, luzitutako tarte batzuk eta egurrezko detaileren batzuk, esaterako, imitaziozko kantaletako zutoinak, pisuen arteko egitura, teilatuaren hegalaren besoak, garajearen frontoia eta leihoburuak. Isurialde biko teilatutun etxea da.

toponimia

Etxe hau eraiki zutenean ez omen zuten bertako toponimoa, Intxaurrenondo, egoki ikusi, arruntegia zelakoan edo adar-jotze bidea izan litekelako Donostiako auzo ezagunagatik. Baina izen berria asmatu beharrean zubererazko kidea den Intxaurtze jarri zioten etxeari.